



KORAPILOAK

Maddi Aiestaran Iparragirre

Beasain

Lokarriak lotzen irakatsi ziguten.
Korapiloak lotzen.
Eta etxeratzean,
askatzen.
Sokatxo bati tira eginda.
Sokatxo bati tira eginda
aska daitezkeen korapiloak lotzen
irakatsi ziguten.
Eta ikasi egin genuen.

Gaur da eguna,
baina,
badakidana
ez genuela zerbait ongi ikasi.
Ohartu naizena
ez genuela ikasi
sokatxo bati tira eginda
korapilo oro askatzen.
Edo sokatxo bati tira eginda
aska daitezkeen korapiloak soilik lotzen,
sortzen.



Irakatsi nahi izan ziguten
korapiloak lotzen,
eta askatzen.
Baina guk
jolasean jarraitu genuen
korapilo are landuagoak sortzen.
Eta eztarriko korapilo gaiztoek
gupidagabe kutsatzen duten
arnas abailduaren gatibu izaten
ikasi genuen.
Korapiloen zurrumbilo eroan
korapilatuta bizitzen.

Sokaren muturrari tira egin,
eta beste korapilo bat lotzen.
Eta beste bat.
Eta beste bat.

Azken batean,
korapilo bat lotzea
ez al da
beste bat askatzeko
modu bakarra?